

LETREN FAKULTATEKO AKADEMIA ANTOLAKUNTZAKO BATZORDEAK ZEHAZTUTAKO IRIZPIDEAK GRADUKO UNIBERTSITATE IKASKETETAN HASIKODIREN IKASLEENTZAT, LEHENDIK BESTE UNIBERTSITATE IKASKETA BATZUK HASITA DITUZTELARIK

Kanpoan geratuko dira ondoko betebeharrak ez dituzten eskariak:

1. UPV/EHU jarraitzeko arautegia.
2. Gutxienez, baliozkotu edo aitortu ahal bazaizkie 30 kreditu.
3. Plaza mugarik duten ikasketen kasuan eta plaza guztiak ohiko prozeduraren bidez esleituta direnean lehenengo ikastaroa osorik gainditu izana.

Ikasleak hartuko dira baldin eta ikastegiaren edukierak aukera ematen badu eta plaza kopurua, gehienez dela, honakoak izango:

- Sarrera berriko ikasleentzat eskainitako plaza guztien % 20a, Geografia eta Lurralde Antolakuntza eta Artearen Historiako graduetan.
- Sarrera berriko ikasleentzat eskainitako plaza guztien % 10a, Ingeles Ikasketen, Euskal Ikasketen, Filologia, Itzulpen-gintza eta Interpretazioa eta Historiako graduetan.

Honako irizpide hauek ezarri dira, betebeharrak betetzen dituzten eskariak barematzeko:

- Lehenengo eta behin, jatorriko titulazioaren lehenengo ikastaroa osorik gainditu guren ikasleen eskariak hartuko dira.
- Bigarrenengoz, egin nahi den titulazioaren arloko unibertsitate

ikasketak dituzten ikasleen eskariak balioztatuko dira.

- Eskariak lehenago adierazitako irizpideak aintzat harturik ordenatu ostean, titulazio bakoitzean gelditzen diren plazak ikasleak lehenagoko unibertsitate ikasketetako akademi espedienteen izan duen batez besteko notaren arabera esleituko dira. Batez besteko nota hau haztatuko da jatorrizko titulazioaren eta egin nahi den titulazioaren arteko antzekotasun mailarekin.

Eskarietan egin nahi diren graduak adierazi behar dira, bai eta hauen arteko lehenespen ordena ere. Fakultateko idazkaritzan aurkeztuko dira arautegiak ezarritako epeetan, dokumentazio honekin batera:

1. Onarpenerako eskaria egitekoinprimakia.
2. N.A.N. edo A.I.A.ren fotokopia.
3. Ikaslearen ziurtagiri akademikoa, jatorrizko unibertsitateak emana eta, ahal dela, espedientearen batez besteko nota espresuki adierazita. Gradu ikasketa plan bat bada, irakasgai bakoitzaren kreditu kopurua eta hauen izaera agertu behar dira (oinarrizko hezkuntza eta jakintz arloa, nahitaezkoa edo hautazkoa).
4. Hautaprobetako txartela, beste unibertsitateetako ikasleen kasuan.

Hirugarren eta laugarren puntuetako dokumentazioak originala behar du eta originala eta kopia, biak alderatzeko, eta beste unibertsitate batzuetatik datozen ikasleek aurkeztu behar dute, ez besteek.